

## Herri Musikaren 2. jardunaldiak

EZTABAIDA ETA GOGOETARI BIDEA ZABALDU DIEN ESPERIENTZIA

**Honela labor dezakegu Oiartzunen joan den azaroaren 29 eta 30ean ospatutako Herri Musikaren 2. Jardunaldiei buruz egingo genukeen balorazioa.**

**Bai Euskal Dantzarien Biltzarra eta bai Herri Musikaren Txokoa ere, pozik gaude egun hauetan antolatutako ekintza ezberdinetan lortutako emaitzekin. Mintegira eta ondorengo mahai ingurutara bildutako jende kopurua eta parte hartzea ikusirik, agerian gelditu dira jardunaldi hauetako gai nagusiaren inguruko interesa eta kezka.**



Honela bada, Iarunbat goizeko mintegian Iñaki Irigoien (Herri dantzarako doinu eta jotzeko tresnak), Jose Inazio Ansorena (Herri dantzarako musika jolea) eta Elías Martínez-ek (El músico tradicional y las danzas procesionales en la provincia de Valladolid) emandako hitzaldiek interes handia piztu zuten bildutakoen artean, eta ondoren eztabaida zabala sortu zuten, denborak mugatu bagintuen ere. Arratsaldean berriz, bi komunikazio aurkeztu ziren: "Galdutako dantza zaharren berreskuraketa: Larraungo ingurutxo" eta "Dantza taldeetako musikari eta dantzarien arteko harremanen inguruko topikoen katalogoa", zer esan ugari eman zutenak hauek ere.

Argi dago beraz, jardunaldien aurkezpenean esaten zenez, aukeratutako gaiak baduela gaurkotasunik, eta dantzari zein musikariak interesaturik ez ezik, kezkatuta ere badaudela honen inguruan.

Mahai inguruen ondoren Herri Musikaren Txokoa bisitatu zen, jarraian Oiartzungo Elorsoro kiroldegian burutu zen jaialdiari txanda emateko. Azken honetan herri dantza ezberdinen eredu ederrak gozatu ahal izan genituen Iurretako dantzarien (Bizkaia), Goizaldi Dantza Taldearen (Gipuzkoa), La Charambitaren (Valladolid-Gaztela) eta Barkoxeko dantzarien (Zuberoa) eskutik, kolore eta kontraste handitako saioa eskeini zigutelarik, bakoitzak bere eskualdeko dantzak eta nork bere estiloko dantzatuz. Zoritxarrez oso ikus-entzule gutxi hurbildu bazen ere, jaialdi beroa izan zen hura,



Larrain dantza igande arratsaldeko erromerian

aurreko saioetan azaldu eta eztabaidatutako gaien argigarri baino gehiago. Han gertatutakoaren adibide, Zuberoako bost dantzariak "branle"-ko soka osatzeko ikuslegotik jendearen laguntza eskatu zutenean, berehala bete zen oholtza.

Igandeko jardunaldian, Josu Larrinaga, Patrik Queheille eta La Charambitako kideek gidatu zituzten dantza tailerrek aise bete zituzten jarritako helburuak, eta hain dantzariak ez garenok ere ezagutu ahal izan genituen, ez dantzatzeko hiru era ezberdin bakarrik, baita dantza horiek entsegatu eta erakusteko hiru era berezi ere. Azkenik, ikasitakoa praktikara eraman ahal izan zen arratsaldeko erromerian. Bertan, Oiartzungo trikitilari eskoletako ikasleen, Lartaun txistulari taldearen edota Gasteizko albokariaren musikarekin osatutako korroez gainera, frontoiaren alde batetik bestera iristen zen bikote ilada ere aritu zen La Charambita taldekoek eskeinitako Valladolideko jota eta agudoak dantzatzen. Ostera ere korrotan bildu ziren dantza zaleak Roberto eta Kepa Bizkaiko trikitilarien eta Pasaiaiko Alkarkide txarangakoen doinutara, eta eguraldi petral



### Jardunaldien aurkezpena Koldo Mitxelena

samarra izan bagenuen ere, ez zitzaion dantzatzeari utzi Iruñako Gaiteroek Larrain Dantzaren amaierako "corrida" jo zuten arte, honekin eztabaidarako eta dantzarako aukera eman duten jardunaldi hauek amaitzeko.

Nolanahi ere, jardunaldiotara etortzerik izan ez dutenek ere bertan egin eta hitzegindakoen berri zehatzagoa izan dezaten, badugu luzera baino lehen argitaratzeko asmoa han aurkeztutako hitzaldi, komunikazio eta eztabaidak, jardunaldien kronika zabala eta berauen balantze batekin.

Aurrerantzean, gure asmo eta helburuak bi dira: batetik jardunaldietan hasitakoari jarraipena ematea, eta bestetik Herri Musikaren 3. Jardunaldiak antolatzen hastea.

### Valladolideko taldea larunbat iluntzean Elorsoron egindako dantza jaialdian



### Igande goizean Auzokalte elkartearen buruturiko tailerra

# KONTZERTUAK HM Txokoan

## Neguko kontzertua

2003ko abenduaren 27an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

JON ENBEITA, OIHANE ENBEITA, IRENEO AJURIA (BIZKAIA)

"URRETXINDORRA BERE BERTSOETAN"



<<Orain hiru bat urte, Enbeitatarrei buruzko trilogia txiki bat idatzi nuen Joakin Berasategik eskatuta, gero SENDOAK argitaratuko zuena. Trilogia honetako bigarren liburua,



"Enbeitatarrak II", Urretxindorrari eskeinia da. Kepa Enbeita bertsolari aberatsa zen, ez letren aldetik bakarrik, baita doinu eta neurri berezien aldetik ere. Badira berak bakarrik erabiltzen zituen doinuak eta gaur ere gutxi ezagutzen direnak, are gutxiago erabili. Horrexek, hain zuzen ere, bultzatu ninduen,

liburuaren osagarri edo laburpen gisara, bertako bertso eta doinu bereziak kantuz eskeintzera. Jon Artetxeri, gernikar musikari gazteari, aurkeztu nion nire proposamena, bideragarri zitekeen ikusteko, pianujole bat behar bainuen. Pianuaren babesean, hainbat bertso eta doinu berezik, narratzaile baten hariari jarraituz, irudikatuko zuten bertsolaria, eta liburuaren mamia laburbildu. Horrela sortu zen "Urretxindorra bere bertsoetan" emanaldia. Esperientzi barri bezain aberatsa izan da pertsona baten



izaera bere bertsoen bidez emate hau, edo liburu bat kantatuz irakurtze hau.

Oiartzungo saio horretarako ez dut pianujolerik, kanpotik baita. Bertsolari bi izango ditut lagun; Oihane Enbeita, alaba, narratzaile lanetan eta Ireneo Ajuria ahots laguntzaile bezala.>>

*Jon Enbeita*

*(argazkiak Xenpelar Dokumentazio Zentroak utzita)*

### AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartean (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 12 euro.

# ANTONIO SANCHEZ MARTIN

## Maillo-ko (Salamanca) Tamborileroa

Antonio Sánchez Martín Salamancako Maillo herrian jaio zen orain dela 72 urte. Gaztea zela, "Vicente el tamborilero" zelako danbolinak jotako musika dantzatzeko zen Maillon. Antoniok dioenez, Vicente hau herriaren punta batean bizi zen, eta bestetik, gazteak biltzen ziren lekutik, jo zezan txistuka deitzen ziotenean, berehala azaltzen omen zen bere "gaita" eta danbolinaz koadrila alaitzera. Gero "Juanín" izan zuten dantzarako danbolina, baita honen aita Joaquín ere, jotzen zerbait ikasi zuen zaletua azken hau. Garai haietan Maillon sueltoan (jotak), "agarrao", "revuelto" eta "trincao" dantzatzeko zituzten, baita pasodoble eta tangoak ere.

Antoniok Arcadiorekin danborra jo zuen, gaita jotzen zuen lagun batekin. Aurrerago, lurretara bizitzera etorri zenean, gaita bat erosi eta bere kabuz ikasi zuen hura jotzen. Baratza koskor bat egiteko lur sail txiki bat hartu zuen eta han, lan egin ondoren atsedena hartzeko, gaita astintzen zuen.

Bi danbolin (tamboril) ditu, berak hazitako ahuntz pare baten larruarekin enkarguz eginak; bata Maillon jotzeko erabiltzen du, herrira joaten denetan, eta bestea lurretan jotzeko dauka.

Urtero jotzen du Mailloko festetan, plazako dantzaldietan nahiz ofizio erlijiosoetako "toque" edo joaldietan, hala nola erromeria eta ezkontzatan.

Antonio, musikaria izateaz gainera, Durangoko "Centro Salmantino"-ko "Calva" taldeko jokalaria eta animatzaile ere bada, inguruko herritan antolatzen diren txapelketatan parte hartzen duelarik.

Kontzertuko egitaraua:

**GAZTELAKO DANTZA TIPIKOAK**  
**JOTAK**  
**FANDANGOAK**  
**"BAILES PICAUS"**  
**"BAILES SERRANOS"**  
**"PASACALLES"**  
**MEZA - OFERTORIOA**

### **BISITARI KOPURUA**

Iraila: bisitari kopurua: 28

Antolatutako taldeak: 3

Urria: bisitari kopurua: 186

Antolatutako taldeak: 8

Azaroa: bisitari kopurua: 287

Antolatutako taldeak: 14

*Bisitari kopurua abenduaren 5 arte:*  
**4.015**



### **Herri Musikaren Txokoak "DOINUTEGI"** **egitasmoa aurkeztu du <<Cultura 2000>>** **Programa Markora, 2004ko deialdian**

Kultur Ondarea: Herri Musika emaileak  
DOINUTEGI

Hots biziaren grabazio bilketa. Gipuzkoa aldeko saioa

Doinutegi egitasmoaren abiapuntua, herri musikaren agerpenetan aditzera ematen den kultura ondare ez materiala kontuan hartu, baloratu eta babestu beharretik sortzen da. Zedarrizko helburu hau harturik, egitasmoaren planteiamenduak ezagutze eta erregistratze jardueratan oinarritzen dira, katalogo-inbentarioa zehazteko bitarteko gisa, honela material hau gordetzeko neurri egokienak hartu ahal izatea bideratuz.

Helburu honekin ikerketarako egitura bat antolatu dugu, bertan bilduz antolatzailerik gisa eta Herri Musikaren Txokoak koordinaturik, Euskal Kultur Erakundea - Institut Culturel Basque (Uztaritzen duena etxea) eta Campo Arqueológico de Mértola (Portugal), eta hauekin, laguntzaile gisa arituko da Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Baloreen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila, egitasmoaren zabalpen akademikoari dagokion zeharkako ardatzaz arduratuko dena.

### **HERRI MUSIKAREN TXOKOA**

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

